



9. ATALA: BERTSOLARIAK

KARTA DIDAKTIKOA

LABURPENA

	Jarduerak	Titulua	Helburua	Baliabideak
Hasiera fasea	1. Jarduera	Zer dakigu bertsolaritzaren inguruan?	Bertsolaritzaren inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.	Ordenagailua Bozgoragailua I. Eranskina: Doinuen zerrenda.
	2. Jarduera	Bai, esan? Bertsolariak.	Bertsolaritzaren lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta.	Ordenagailua Proiektorea Bideopodkasta
Garapen fasea	3. Jarduera	Koplak.	Koplen ezaugarriak identifikatzea.	II. Eranskina: Koplak. III. Eranskina: Koplen ezaugarriak.
	4. Jarduera	Errimen zerrenda osatu.	Ikasgelako errima bildumaosatzea.	Arbela. Arkatza, boligrafoak... Paper txuriak IV. Eranskina: Errimen bilduma.
Ekoizpen fasea	5. Jarduera	Koplak sukaldatzen.	Ikasle bakoitzak koplak bat sortzea.	I. Eranskina: Doinuen zerrenda.
	6. Jarduera	Gu bertsolari!	Bertso emanaldia prestatu eta egitea.	Emanaldia egiteko espazioa.

* Karta didaktiko hau proposamen bat da. Irakasle bakoitzak bere ikasgelara zein ikasleen interesetara moldatzeko aukera du

MUINA

Helburuak

- Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako bertsolaritza aitzakitza hartuta, bertsolaritza mundua ezagutu, bertso bilduma egin eta ikasle guztien artean bertso txapelketa bat prestatuko dugu.
- Espezifikoak
 - Bertsolaritzaren ezaugarriak ezagutzea.
 - Kopla, oina eta neurria zer den ezagutzea.
 - Hizkuntzaren erabilpena lantzea.
 - Egoera desberdinen aurrean sortzen diren emozioak lantzea esparru ezberdinetan.
 - Bertso txapelketa prestatzea.
 - Ardurak betetzea.
 - Helburuak lortzeko taldean lan egitea.

Azken xedea edo ekoizpena

- Azken xedea izango da gela guztiaren artean ikastetxeko beste kideentzako bertso txapelketa bat prestatzea eta sortutako bertsoak abestea.

Ikasle taldea

- Bigarren ziklorako pentsatuta dagoen karta didaktikoa da, printzipioz. Hala ere, karta didaktikoaren amaieran gainontzeko zikloetara egokitzeke proposamenak biltzen dira.

KARTA DIDAKTIKOA

Lehenengo fasea

1. jarduera → Zer dakigu bertsolaritzaren inguruan?

- Helburua: Bertsolaritzaren inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.
- Gelara sartuko gara eta bertsolaritzan erabiltzen den doinu bat jarriko dugu. Asanbladan eserita, entzundaoaren inguruko elkarrizketa bat hasiko dugu. Hona hemen elkarrizketa hasteko galdera gidari batzuk: Zer da entzun duzuen? Ezaguna egiten ahal zaizue? Zertarako erabiltzen da doinu hau? Nork erabiltzen du?...

Irakaslearentzat oharra:

- Jarduera hau aurrezagutzak pizteko besterik ez da. Informazio asko ez dute izango, eta gure ardura izango da elkarrizketa bideratzea pistak emanaz. Hala ere, interesgarria da ezjakintasun hori ere balioan jartzea eta horren inguruan hausnartzea. Ezjakintasun hori gehiago jakiteko irrika pizteko erabiliko dugu.
- Bestade, eranskinetan aurkituko duzue doinu batzuk biltzen dituen zerrenda.

2. jarduera → “Bai, esan? Bertsolaritza”

- Helburua: Bertsolaritza lanbidearen inguruko hausnarketa hasia bideopodkasta oinarri hartuta.
- Bai, esan? Bideopodkasta ikusiko dugu. Lehenengo jardueran landutakoarekin eta bideopodkasteen jasotako informazioarekin lanbidean gehiago murgilduko gara. Jasotako informazioan ikasleei interesa piztu dien gaiak oinarri hartuta ikasleak hausnarketara bideratuko ditugu eta lanbidearen inguruko ondorioak ateratzera bultzatuko ditugu.

Irakaslearentzako oharra:

- Elkarrizketa horretan irakasleak hainbat input eman beharko ditu helburu komun batzuetara iristeko. Atera behar diren ondorioetako batzuk hauek dira:
 - **Bertsolaria.** Bertsolaria hizkuntzaren maitale sutsua izan behar da, hizkuntzarekin jolasteko grina izan behar du eta behatzailea izan behar da. Bertsolariak ikusten duen horrekin ere jolasten jakin beharko luke.
 - **Ezer ez da ematen duena.** Bertsolariek errima zerrendak dituzte, eta hauek aberastea garrantzitsua da. Bertsotan aritzean errimak azkar pentsatzeko gai dira aurretik errima zerrenda eginda eta osatua dutelako. Askotan pentsatzen dugu bat-batean eta une horretan asmatzen dituztela errimak baina lana aurretik eginda egoten da, errima zerrenda hori osatzean eta idatzitakoa barneratzean.
 - **Bidea.** Batzuetan helburu jakinik gabe abiatu beharreko bideekin egingo dugu topo. Bidean zehar sortuko dira aukerak, bideak emango dizkigu ezagutzak, baliabideak eta bideak erakutsiko digu zer dugun gustuko eta zer ez. Hala ere, aukerak sortzeko praktikatu beharra dago. Adibidez, bertsolari bati bideak sortuko dizkio aukerak baina lagun artean, parrandan... asko abestu beharko du.

KARTA DIDAKTIKOA

Garapen fasea

• 3. jarduera → Koplak

- Helburua: Koplen ezaugarriak identifikatzea.
- Irakasleak hainbat koplak banatuko ditu eta ikasleek, taldeka, kopletan errepikatzen diren ezaugarriak identifikatu beharko dituzte.

Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko duzue jarduera hau egiteko koplak proposamenak. Koplak hauek Bertso Ikasgela webgunetik hartuak dira, webgunea saltseatu eta ikasleen intereseko koplak aukeratzea proposatzen da. Bestalde, ezaugarrien zerrenda ere eranskietan aurkituko duzue.

4. jarduera → Errima bilduma

- Helburua: Bertsoak egiteko baliagarriak izango diren ikasgelako errimen bilduma osatzea.
- Lehenik, irakasleak errima ezberdinak dituzten hainbat hitz idatziko ditu arbelean eta ikasleek, taldeka, hitz bakoitzarekin errimatzen dituzten hitz zerrenda egingo dute. Ondoren, talde handira ekarriko dugu talde bakoitzaren zerrenda, horrela, ikasgelako errima bilduma sortuz.

Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko duzue Bertso Ikasgela deituriko webgunean aurkitu dezakezuen azalpen zein ariketak.
-

KARTA DIDAKTIKOA

Ekoizpen fasea

5. jarduera → Koplak sukaldatzen

- Helburua: Aurreko jardueran landutako ezaugarriak aintzat hartuta ikasle bakoitzak norbere kopla sortzea (taldeka ere egin daiteke).
- Jarduera honetan aurreko jardueretan landutakoa praktikan jarriko dugu. Horretarako, aurretik zerrendatutako ezaugarriak aintzat hartuta ikasleek beraien kopla propioak sortuko dituzte. Horretarako, ikasleekin gai bat adostu beharko da. Bestalde, irakasleak hainbat doinu proposatuko ditu.

Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko duzue doinu posibleen zerrenda.

6. jarduera → Gure bertsolari!

- Helburua: Sortutako koplak plazaratzeko espazioa muntatu eta ikusleak jasotzeko prest uztea izango da.
- Jarduera honetan denok batera emango diote emanaldiari forma. Ahulkiak jarriko dituzte, eszenatoki bat irudikatuko dute... finean, gela txapelketa gune bihurtuko dute. Bitartean emanaldiaren eguna ere finkatuko dute. Kasu honetan beste eskolako kide batzuei gonbidapena luzatzea proposatzen da, gonbidatu nahi diren taldeen geletara bisita eginez.
- Koplak plazaratzeko egunean ikasleek harrera egingo diete etortzen diren guztiei eta behin dena hasteko moduan dagoenean, txandaka, ikasleak euren koplak abesten hasiko dira.


Karta didaktikoa beste maila batzuetara egokitzeko proposamena

- Karta didaktiko hau bigarren ziklorako prestatuta dagoen arren, beste zikloetara egokitzeko aukera dago. Ziklo baxuagoetarako irakasleak emango duen laguntza eta ikasleei emango dizkieten baliabideak handiagoak izango dira. Adibidez, 6.jarduera egiteko irakasleak abesti baten letra banatuko dizkiete ikasleei. Kantu horretako letra desordenatuta egongo da eta ikasleek taldeka abestiko hitzak ordenatu beharko dituzte abestira erreal lortzeko. Ziklo altuagoetan berriz, sortutako abestia ikasgelara mugatu beharrean, guraso edo eskolako gainontzeko ikasle zein irakasleentzako kontzertu bat antolatzen bideratu daiteke saioa. Kontzertuan sortutako abestia abesteaz gain, ikasleen gustuko abestiak bersionatu daitezke.

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

I. Doinuen zerrenda



The screenshot shows the website 'BDB Bertsolaritzaren datu-basea' with a search bar and a list of search results. The search bar contains the text 'Bilaketa orokorra' and a search button labeled 'Bilatu'. The search results are displayed in a table with columns for 'Mota' (Category) and 'Emaitzak: 62864' (Results: 62864). The results are grouped into sections: 'Lehengo gaxte haiek', 'Lehengo mandamentua', 'Lehengan zer pasa zan', and 'Lehiak kintelak'. Each section contains a list of search results with a play button and a duration of 00:00 / 00:00. The search results are as follows:

Mota	Emaitzak: 62864
Doinuak	3232
Biografiak	3292
Bertso-eskolak	230
Bat-bateko bertsoaldiak	10082
Bestelako bertso-sortak	4366
Aldizkako Ekitaldiak	3130
Grabazioak	17529
Prentsa	10395
Liburutegia	10510
Kantu inprobisatuak	98
Pertsona	
Agirre Goia, Unai	1157

The search results are grouped into sections:

- Lehengo gaxte haiek**
 - [Doinua]
 - Neurria / Estroforen izena: Hamarreko txikia (hg) / Bost puntuko txikia (ip) Egitura metrikoa: Hutsik Mota: Informazioa gehitu
- Lehengo mandamentua**
 - [Doinua]
 - Neurria / Estroforen izena: Hamarreko txikia (hg) / Bost puntuko txikia (ip) Egitura metrikoa: Hutsik Mota: Erlijiozkoa Informazioa gehitu
- Lehengan zer pasa zan**
 - [Doinua]
 - Neurria / Estroforen izena: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip) Egitura metrikoa: Hutsik Mota: Kontakizunezkoa Informazioa gehitu
- Lehiak kintelak**
 - [Doinua]


Hurrengo orrialdean aurkituko dituzu hainbat doinu:

<https://bdb.bertsozale.eus/web/bilaketa/index>

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

II. Koplak



The screenshot shows a web browser window with a purple header. The website is 'BERTSO IKASGELA'. The navigation menu includes 'SARRERA', 'ALBISTEAK', 'GURI BURUZ', 'IKASTETXEAK', and 'IKASLEEN TXOKOA'. The current page is 'NIRE BURUARI - AURKEZPEN KOPLAK'. The main content area features a lightbulb icon, the title 'NIRE BURUARI - AURKEZPEN KOPLAK', and a 'DOINUA: AMA BEGIRA ZAZU' section. Below this is a paragraph of text: 'Koplak jarriko ditugu, nor gure berri emanez. Laguntza gisa, hara hemen ereduzko koplak. Entzun ditzagun audioaz! Bizkarrezur hori gure mamiz beteko dugu gero: gure ezaugarriak aipatuz moldatuko ditugu koplak.' To the right of the text is a 'PDF' button and an audio player showing '0:00 / 1:30'. At the bottom, there is a banner with the text 'Nire buruari' and 'Aurkezpen koplak' over a background image of a horse's head.

Hurrengo orrialdean aurkituko dituzu hainbat doinu:

<https://bertsoikasgela.eus/baliabideak/897/>

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

III. Koplen ezaugarriak



KOPLAK

ZER DIRA? ZEIN EZAUGARRI DITUZTE?

1

**Lau lerroko
ahapaldiak
dira.**

2

**Gehienek 10 eta
8 silabako bi
lerro pare dituzte**

3

**Bigarren eta laugarren
lerroetako (8 silabako
esaldietako) azkenengo
hitzek errimatu egin
behar dute.**

4

**Eskekoak edo
dantzakoak izan
ohi dira.**

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

IV. Errimen bilduma



Oin bila gabiltzanean...

Oinak eman egin dizkigute orain arte.
Oraingoan, geuk bilatuko ditugu.
Errimatzen duten hitzak ekarri ezinik
gabiltzanean, **lagungarriak** dira
errima familiak.

K-P-T
kontsonanteak
Gogoratzeko:
KoPeTa



Kontsonante hauek
ahoskabeak dira. Eskua
eztarrian jartzen badugu
eta kontsonantea soilik
ahoskatu, **bibraziorik ez**

Antzeko soinua

Hurrengo baliabidean aurkituko duzu oinen inguruko azalpenak eta ariketa posibleak: https://bertsoikasgela.eus/media//pdf/Zozoak_beleari_66-67_Gw6eWtD.pdf

© EITB MEDIA

